



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea



KAZETARITZA GRADUA

IKASTURTEA 2017-2018

Memoria

Txikitik aniztasuna eraikitzen

EGILEA: Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria

ZUZENDARIA: Irati Agirreazkuenaga Onaindia

2018ko maiatzaren 31a

AURKIBIDEA

1.	SARRERA: JUSTIFIKAZIOA ETA HELBURUAK.....	2
1.1.	Zergatik hautatu dut gaia?	2
1.2.	Helburu nagusia	2
2.	PROIEKTUAREN GARAPENA: TESTUINGURUA ETA METODOLOGIA	4
2.1.	Testuingurua	4
2.1.1.	Immigrazio mugimenduak: Euskal Autonomia Erkidegoa eta Bilbo.....	4
2.1.2.	Hizkuntza politika Euskal Autonomia Erkidegoan	6
2.2.	Metodologia	7
2.2.1.	Sakoneko elkarrizketak.....	10
2.2.2.	Behaketa saioak	10
2.2.3.	Iturri dokumentalen azterketa	10
2.2.4.	Ekoizpenerako pausuak	11
3.	IKERTUTAKO KASUA: MIRIBILLA ESKOLA PUBLIKOA	13
3.1.	Miribilla eskolaren ibilbide historikoa.....	13
3.2.	Miribilla eskola: gaur egungo egoera eta jarduna.....	13
3.2.1.	Lan dinamikak	16
3.2.2.	Euskararen garrantzia	16
3.2.3.	Proiektuak.....	17
3.2.4.	Oztopoak.....	18
4.	ONDORIOAK.....	19
5.	AZKEN GOGOETA	20
6.	ERREFERENTZIAK	22
6.1.	Lehen eskuko iturriak	22
6.2.	Bibliografia	22
7.	ERANSKINAK.....	23
7.1.	Elkarrizketak.....	23
7.2.	Lanerako erabilitako kronograma	66

1. SARRERA: JUSTIFIKAZIOA ETA HELBURUAK

1.1. Zergatik hautatu dut gaia?

Gradu Amaierako Lan honetan Miribillako Eskola publikoa hartu da ikerketa-kasu gisa, Bilbo zaharra – San Frantzisko eta Miribilla auzoen artean kokatuta dagoen hezigunea. Ikasle gehienak San Frantzisko auzora immigratu duten etorkinen seme – alabak dira, gurasoekin batera etorri direnak edo hemen jaioak. Badira, ordea, betidanik bertan egon diren auzokideak ere. Esaterako, ijito komunitateko kideak edota familia euskaldunak. Eskola honetan orotara hamabi etnia, hogeita bat herrialde, zazpi sinesmen eta hamaika hizkuntza desberdin elkartzen dira.

Euskal Herriko edo Estatu espainoletik euskal lurretara etorritako ijito komunitateko gaztetxoek osatzen dute aztergai den eskolaren zenbatekoaren gehiena, Errumaniatik immigratutako ijitoen kopurua delarik ondorengo handiena. Kopuruei jarraiki Maroko, Aljeria, Bolivia, Nigeria eta Ginea dira ikasleen gehiengoaren jatorrizko herrialdeak. Asia eta Europatik etorritako ikasleren bat ere bada; besteak beste, Txina edo Portugaletik immigratutako familien seme – alabak.

Gaur egungo testuinguruaren jabe eginez, eskola honetan jatorri aniztasuna oinarri izanda egiten duten lana goraiatzekoa da. Gizartean dauden susmo eta uste guztiak albo batera utziz, egoerari buelta emateko prest dagoen komunitatea da Miribilla eskolakoa. Irakasle, guraso zein umeek lanean dihardute aniztasunaren zein euskararen alde, benetako integrazioari hauspo emanez; baita, Bilbon kokatuta dagoen San Frantzisko auzoko zein inguruetako hamarnaka eragile ere. Gainera, euskara integrazioarako balore garrantzitsua izan daitekeela uste dute Miribilla eskolako kideek. Hori dela eta, euskal hizkuntzaren aldeko apustua egin dute.

1.2. Helburu nagusia

Lan honen xede nagusia Miribilla eskolak integrazio positiboaren alde gauzatzen duen jardunaren nondik norakoak ikertzea izan da; batik bat, euskarak integrazioarako bidean zein funtzio betetzen duen aztertzea. Lehen eskuko iturrietatik zein iturri dokumentaletatik jasotako ideiek hornitu dute Gradu Amaierako Lan hau osatzen duen erreportaje sakona.

Helburu nagusia lortzeko, lehenengo eta behin eskolaren ibilbide historikoa aztertu da. Urteek aurrera egin ahala, euskarak aniztasunean eta integrazioan jokatu duen papera zein den ezagutzeko, hezkuntza proiektuaren oinarri diren hiru zutabeak hartu dira kontutan: irakasleak, ikasleak eta gurasoak. Aipatu hiru talde horietako zenbait kiderekin izandako elkarrizketak (3 irakasle eta 3 guraso) eskola, euskara, integrazioa eta kulturekotasunean adituak diren bi aditurekin osatu dira, hurrengo atalean azalduko dugunez. Honela, gaur egungo gizartean pil-pilean dauden hezkuntza, segregazio eta hizkuntza bezalako gaiak, kasu praktiko baten bitartez hurbilarazi nahi izan zaizkio irakurleari.

Azken hiru urteotako migrazio fluxuak ere aztertu dira, Miribilla eskolako ikasleriaren jatorriarekin erlaziorik ba ote duen ikertu ahal izateko. Izan ere, ondorengo puntuetan azalduko den bezalaxe, jakinekoa da azken urteotan immigrazioak gora egin duela Euskal Autonomia Erkidegoan.

Hezkuntza politikan, hizkuntzek duten eragina ere aztertu da, Euskal Autonomia Erkidegoan hiru eredu (A, B eta D ereduak) eskaintzen baituzte ikastetxeek. Miribilla eskolak A eta D ereduak eskaintzen dituela jakinda, bakoitzean zein matrikulazio tasa dauden eta ikastetxeko komunitatea osatzen dutenek zein apustu egin duten ikertu da.

Azken hiru urteetako immigrazio mugimenduak zein hizkuntza politikak aztertu ostean, Miribilla eskolaren nondik norakoak ikertu dira, hipotesiak baieztatzen ote diren ondorioztatzeko.

Immigrazio mugimenduak medio, San Frantzisko auzoak bizi izandako aldaketekin, lan honen erdigune dugun ikastetxearen ibilbide historikoa aztertu da, gaur egungo errealitateari ñabardurak ezarri eta egoera hobeto ulertze aldera. Lanaren erronketako bat hain zuzen, Miribilla eskolako ingurunea eta bertan proiektua aurrera eramaten ari diren aktore nagusiak ezagutaraztea izan da, bertako dinamika eta egitasmoak azaltzearekin batera.

Finean, hipotesi nagusia Miribillak D ereduaren alde egin duen apustua onuragarria eta arrakastatsua izan dela da, sei kurtso barru D eredu eskainiko baitute bakarrik. Geroz eta guraso gehiagorentzat, abantaila da euren seme – alabak euskaraz ikastea, nahiz eta aditu batzuek esandakoekin uste honek talka egiten duen. Esaterako, Iñaki Alonsok etorkizuna B ereduan dagoela dio.

2. PROIEKTUAREN GARAPENA: TESTUINGURUA ETA METODOLOGIA

2.1. Testuingurua

2.1.1. Immigrazio mugimenduak: Euskal Autonomia Erkidegoa eta Bilbo

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) eta Bilboko immigrazio mugimenduak aztertzeko, azken hiru urteotako datuak hartu dira oinarri erreportajea idazterako orduan; hain zuzen ere, 2015etik 2017ra bitartekoak. Izan ere, 2018ko datuak oraindik ez daude argitaratuak, eta soilik bost hilabeteko epea hartzen dute kontuan.

Ikuspegik, Immigrazioarek Euskal Behatokiak jasotako datuak erabili dira EAEko zein Bilboko datuak aztertzeko. Hala ere, lehenengoan jatorri herrialdearen eta sexuaren arabera (gizon / emakume) ikertu dira datuak; bigarrean berriz, soilik jatorri herrialdea izan da hizpide.

Idatzizko lan orokorrean, ondorengo datuak Miribilla eskolako ikasleen jatorriarekin alderatu dira, immigrazio mugimenduen eta ikasleriaren jatorriaren arteko harremana azterteko asmoz.

EAEko DATUAK JATORRI HERRIALDEREN ETA SEXUAREN ARABERA						
2015	Guztira		Gizonezkoak		Emakumezkoak	
	K	%	K	%	K	%
Jatorri herrialdea	184.197	100.00	88.998	48,3	95.199	51,7
Maroko	19.260	10,5	12.227	63,5	7.033	36,5
Kolonbia	17.191	9,3	6.896	41,1	10.295	59,9
Errumania	15.230	8,3	7.500	49,2	7.730	50,8
2016						
	K	%	K	%	K	%
Jatorri herrialdea	188.569	100	90.597	48,0	97.999	52,0
Maroko	20.290	10,8	12.739	62,8	7.551	37,2
Kolonbia	17.150	9,1	6.855	40,0	10.295	60,0
Errumania	15.409	9,2	7.591	49,3	7.818	50,7

2017						
	K	%	K	%	K	%
Jatorri herrialdea	195.969	100,00	93.433	47,7	102.536	52,3
Maroko	21.345	10,9	13.265	62,1	8.080	37,9
Kolonbia	18.216	9,3	7.297	40,1	10.919	59,9
Errumania	15.451	7,9	7.636	49,4	7.815	50,6

Taula 1 - Jatorri atzerritarreko biztanleria EAEn jatorriko herrialde eta sexuaren arabera (Ikuspegi)

Tauleri erreparatuz gero, lehen begiradan atzeman daiteke 2015etik 2017ra immigrazio mugimenduek hazkundera izan dutela, atzerrian jaiotako biztanleen kopuruak nabarmen egin baitu gora. Hain zuzen ere, aztertutako azken hiru urteetan 11.772 pertsona ailegatu dira Euskal Autonomia Erkidegora.

Marokoarren, kolonbiarren eta errumaniarren kopuruak izan dira azken hiru urteetan lehen hiru postuak bete dituztenak; gehienetan, emakumeenak. Hala ere, marokoarren kasuan, gizonezkoen immigratze kopurua emakumezkoena baino handiagoa da. Honen arrazoi nagusienetakoa baliteke kultura izatea.

Euskal Autonomia Erkidegoko datuak aztertu ostean, Bilboko datuak ikertu dira. Metodologia, ordea, ez da EAeko datuak aztertze erabili den bera izan, *Ikuspegi*-k ez baitzuen aukera bera eskaintzen. Hori dela eta, Bilboko datuak aztertzerako orduan, lagin desberdina erabili da.

Lehenengo eta behin, Bizkaiko hiriburuko biztanleria guztiaren kopurua zein den aztertu da, atzerrian jaiotakoek zenbatekoa osatzen duten ikertzearekin batera, orotarako kopuruan zein ehunekoan. Ostean, atzerrian jaiotako biztanleetan oinarrituz, jatorri herrialdearen arabera banatu dira, kopuru handienetik hasita.

BILBOKO DATUAK GUZTIRA ETA JATORRI HERRIALDEAREN ARABERA				
2015	Biztanleria guztira		Atzerrian jaiotak	
	K	%	K	%
	345.141	100	34.544	10
Jatorri herrialdea				
Kolonbia			4.621	13,37
Bolivia			3.952	11,44
Maroko			2.719	7,87

2016	Biztanleria guztira		Atzerrian jaioak	
	K	%	K	%
	345.122	100	35.884	10,4
Jatorri herrialdea				
Kolonbia			4.656	12,97
Bolivia			3.964	11,04
Maroko			2.819	7,85
2017	Biztanleria guztira		Atzerrian jaioak	
	K	%	K	%
	345.110	100	37.289	10,8
Jatorri herrialdea				
Kolonbia			4.869	13,05
Bolivia			4.012	10,75
Maroko			2.884	7,73

Taula 2 - Jatorri atzeritarreko biztanleria Bilbon jatorri herrialde eta sexuaren arabera (Ikuspegi)

Behin Bilboko datuak aztertu ostean, Euskal Autonomia Erkidegokoekin alderatuz, pareko daudela esan daiteke. Hau da, EAEko datuek erakusten duten lez, Bilbon ere atzerrian jaiotako biztanleen kopuruak gora egin du 2015etik 2017ra bitartean; hain zuzen ere, 2.745 pertsona ailegatu dira azken hiru urteetan. Guztira, Bilboko biztanleriaren %10,8a osatu zuten 2017. urtean.

Jatorri herrialdea aztertuz gero, etorritakoen jatorriak urteen lagin tartean errepikatu egiten direla ondorioztatu daiteke. Izan ere, Kolonbia, Bolivia eta Maroko dira etorritakoen jatorri herrialdeetan dauden hirurak. Datuek gainera, gorantz egin dute hiru kasueetan.

2.1.2. Hizkuntza politika Euskal Autonomia Erkidegoan

Jakinekua da Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria egoera konplexuak bizi dituzten lurraldeak direla hizkuntzari dagokionean. Izan ere, horietako bakoitzean bina hizkuntza batzen dira. Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroaren kasuan, euskara eta gaztelera dira hizkuntza ofizialak. Ipar Euskal Herriaren kasuan berriz, euskara eta frantsesa.

Guzti horrek eragin zuzena du hezkuntzan, oztopoak oztopo, hizkuntza batean edo bestean ikasteko aukera izaten baitute. Hala ere, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian Euskal Autonomia Erkidegoan baino arazo gehiago dituzte instituzioen jarrera medio.

Gaurkoan, ordea, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako (hau da, Euskal Autonomia Erkidegoa) hizkuntza politikek hezkuntzan duten eragina aztertu da, Miribilla Eskola Bilbon, eta ondorioz Bizkaian, kokatuta baitago.

Urteek aurrera egin ahala, euskara ikastetxe guztietan ari da presentzia bermatzen. Hala ere, oraindik badaude gazteleraz irakasten duten eskolak ere. Izan ere, A, B eta D ereduak dira Euskal Autonomia Erkidegoan nagusi.

A ereduan gazteleraz eskaintzen dira klaseak, nahiz eta euskara ikasgai bezala irakasten duten. B ereduan, berriz, hezkuntza elebiduna izaten da. Hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko kasuan, euskaraz eta gazteleraz ematen dituzte klaseak. Azkenik D eredia egongo litzateke, A ereduaren alderantzizkoa izango litzatekeena. Euskaraz eskaintzen dira klaseak, nahiz eta gaztelera irakasgai bezala irakasten duten.

2.2. Metodologia

Hiru izan dira hemen aurkezten den erreportaje sakona hornitzeko erabilitako metodo eta tresnak: sakoneko elkarrizketak, behaketa-saioak eta iturri dokumentalen bilaketa eta hustuketa.

2.2.1. Sakoneko elkarrizketak

Lehen eskuko iturrien abiapuntua Miribilla eskolako komunitatea osatzen duten kideei eginiko elkarrizketak izan dira, eskolan subjektu aktibo diren hiru kolektiboetako ordezkariak (irakasleak, ikasleak eta gurasoak). Beraiek izan ditugu kasu-azterketaren oinarri nagusi.

Irakasleak izan dira hasierako protagonistak, eskolan umeekin zein gurasoekin esku – hartze handiena dutenak baitira. Eskolaren beharrei, metodologiari zein erronkei buruz galdegin zaie, eskolaren nolabaiteko ikuspegi orokor bat osatze aldera. Profil desberdinetako irakasleak izan dira elkarrizketatuak (behaketa lanetan ere izan dugu irakasle zenbaiten iritzia jasotzeko aukera).

- **Enrique Castelo:** Miribilla eskola sortu zenetik bertan lanean diharduen irakaslea da, hogeita hamahiru urte baino gehiagoko esperientzia duena

irakaskuntzan. Zabala eta San Frantzisko eskolen batzearen ondoren, Miribilla eskolak izandako ibilbide historikoaz hitz egin du, erreportajeari ikuspegi bera eskainiz.

- **Izaskun Alonso:** Miribilla eskolako zuzendaria da, azken bi urteotan aipaturiko postuan dagoena. Metodologia, euskarak duen garrantzia edota gurasoekin duten harremana izan ditu hizpide elkarrizketan. Ikastetxean dauden plan eta programa desberdinei buruzko informazioa ere eskaini du.
- **Arantza Barturen:** Heziketa fisikoko irakaslea bada ere, gaur egun jantokiko arduraduna da. Umeei denbora librean egiten dutena azaldu du elkarrizketan, baita ume desberdinen egoera ezegonkorren aurrean egiten dituzten dinamikak zeintzuk izaten diren ere.
- **Aintzane Rojo.** Lehenengo mailako irakaslea da, D ereduan. Behaketa egunetan berarekin hitz egiteko aukera izan nuen; beraz, metodologia, ikasleen arteko harremana eta euskararen garrantzia izan ditu hizpide, baita ClassDojo dinamika ere.
- **Mari Luz Benitez.** Bosgarren mailako irakaslea da, D ereduan. Behaketa egunean izan nuen bera ezagutzeko aukera. Lehenengo mailarekin alderatuz, klaseko metodologia desberdina ezagutu nuen bere bitartez, bere azalpenez horniturik. Erreportajearen ikuspegi bera txertatu da.

Irakasleez gain, gurasoak elkarrizketatzea ere garrantzitsua izan da, eskolaren egunerokoan subjektu aktibo baitira; batik bat, Guraso Batzordeko kideak (6 familiek osatzen dute Batzordea eta bileretan –behaketa saioetan frogatu ahal izan genuenez– emakumeak dira nagusi). Gurasoek eskolan duten rola zein den gehiago ezagutzeko, hiru emakume elkarrizketatu dira, zeinak euren seme – alabak eskolan matrikulatuta dituzten. Irakasleen elkarrizketetan bezalaxe, profil desberdinetako gurasoak elkarrizketatzea izan da helburu nagusia, nahiz eta zailtasunak handiagoak. Izan ere, Guraso Batzordeko kideez haratago, zaila izan da elkarrizketatzeko prest egon zitezkeen gurasoak aurkitzea.

- **Olatz Malaxetxeberria:** Guraso Batzordeko euskal hiztun bakarra da. Bosgarren mailan, D ereduan, matrikulatuta dagoen eta jatorri marokoarra duen Yasin Malaxetxeberriaren ama da. Eskolaren metodologiaz, egin dituzten proiektuez, eskolak euskarari ematen dion garrantziaz, Guraso Batzordearen lanaz edota familia euskaldunen erabakiez hitz egin du elkarrizketan.
- **Elixabete Garcia:** Ijito komunitateko kidea da, Bilbon jaioa eta San Frantzisko auzoan hazia. Zazpi eta hiru urte dituzten bi umeren ama da: Manuel eta Angara. D ereduan matrikulatuta daude umeak; bata, Haur Hezkuntza; bestea, Lehen Hezkuntzan. Guraso Batzordeko partaidea da. Eskolaren metodologiaz, proiektuez, euskararekin duen harremanaz eta bertako zenbait familiek dituzte aurreiritziez galdegin zaio.
- **Tavita Cortes:** Otxarkoagan jaio eta hazi den ijito komunitateko emakumea; orain dela hamalau urte San Frantzisko auzora joan zen bizitzera eta oraindik ere bertan bizi da. A ereduan matrikulatuta dagoen Martinen ama da. Olatz eta Elixabeten bezala, Guraso Batzordeko kidea da. Elixabetekin batera elkarrizketatua.

Ikasleei dagokienez, elkarrizketek bestelako egitura jarraitu dute. Izan ere, haurrekin elkarrizketa formalaren formulak ez zuen solasaldi natural eta aberatsak izateko biderik ematen, horregatik, ikasleen iritzi eta esperientziak jasotzeko behaketak erabili dira batez ere.

Eskolan parte hartze aktiboa duten subjektuez gain, jatorri aniztasuna, hezkuntza eta hizkuntza aztergai dituzten aditu eta arituekin elkartzeak berebiziko ekarpena egin dio erreportajeari. Amelia Barquin (Bilbo, 1965) eta Iñaki Alonso (Bilbo, 1974) elkarrizketatu dira.

- **Amelia Barquin:** *Mondragon Unibertsitateko* irakaslea da, eta kulturarteko hezkuntza irakasten du Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, Eskoriatzan (Gipuzkoa, Euskal Herria). Horrez gain, generoa, hizkuntza (euskara), klasea eta jatorria aztertzen dituen hainbat ikerketen sortzailea da. Elkarrizketan hizkuntza integratiorako izan dezakeen balioaz ez ezik, familia euskaldunen erabakiei buruz eta hauen atzean dagoen arrazoiez hitz egin du.

Baita Euskal Autonomia Erkidegoan Miribilla eskolaren antzeko egoera bizi duten kasuez ere.

- **Iñaki Alonso:** *Save the Children Euskadi* gobernuz kanpoko erakundean Sentsibilizazio eta Haur-politiken Arduraduna da. Segregazio sozioekonomikoa dute aztergai ikerketetan. Elkarrizketan erakundearen lan orokorra argitaratu berri duten *Nahastu nirekin* txosteneko emaitzak, segregazio sozioekonomikoa eta hizkuntza integrazioan joka dezakeen rola izan dira hizpide.

2.2.2. Behaketa saioak

Behaketa egunak apirilaren 11an eta 18an egin nituen. Lehenbiziko egunean, lehenengo mailako ikasgelan egon nintzen, D ereduan, goizeko 9:00etatik 13:00ak bitartera. Hala ere, 8:40tarako eskolako patioaren ate ondoan nintzen bertan zegoen egoera zein zen ikusteko eta erreportajerako informazio gehiago edukitzeko. Egun horretan ikasgelan ez ezik, patioan egoteko aukera ere izan nuen.

Bigarren egunean berriz, apirilaren 18an, bosgarren mailako ikasgelan egon nintzen; honetan ere, D ereduan, 9:00etatik 11:00etara. Lehenengo egunean ez bezala, ordea, ondoren eskolako korridoretan zeuden proiektuak ikusteko aukera izan nuen, zein gai lantzen zituzten ezagutuz eta zein modutara.

2.2.3. Iturri dokumentalen azterketa

Iturri dokumentalei dagokienean, txostenak izan dira oinarri. Besteak beste, eskolarekin elkarlanean aritu diren eragileek osatutako dokumentuak, euskara eta eskola oinarri dituzten ikerketak edota haurrak eta segregazioa aztertzen dituzten gobernuz kanpoko erakundeen azterketak.

Lehenengo eta behin, Amelia Barquinek Jakin aldizkarian argitaratutako *Euskara, generoa, klasea eta katorria eskolan*. Zenbait gogoeta atala aztertu da Miribilla eskolaren erreportajea egin ahal izateko, ikastetxearekin lotura daukaten gai zuzenak jorratzen baitira bertan. Horrez gain, euskararen gaiari eutsi ahal izateko, Aztiker Soziologia Ikerguneak argitaratutako txostena erabili da erreportajerako, *Hezkuntza esparrua eta euskalduntzea EAEn* titulupean argitaratu zutena 2018. urteko otsailean. Euskarak azken urteotan hezkuntzan izan duen bilakaera ikertzen du.

Intercultural policies in a multicultural neighbourhood: Experiences in three primary schools in San Francisco, Bilbo tesia ere aztertu da, Maria Martinez eta David Gomez ikerlariak osatu zutena. San Frantzisko auzoko hiru eskola dituzte oinarri ikerketan. Azkenik, *Save the Children Euskadik* 2018ko apirilean argitaratutako *Nahastu nirekin* ikerketa ere oinarria izan da lan hau gauzatu ahal izateko, Iñaki Alonsori egindako elkarrizketa osatzeko ezinbestekoa izan baita.

2.2.4. ekoizpenaren pausuak

Lehenengo eta behin, tutorearekin hitz egin eta gaia finkatu ostean, Miribilla eskolako zuzendaritzarekin jarri nintzen harremanetan, nire proiektua azaldu eta parte hartzeko prest egongo liratekeen galdetzeko. Euren erantzuna baiezkoa izan zen, eta ordutik eskuak zabalik hartu naute ikastetxean.

Zuzendariarekin batu nintzen lehenengo, eta hark guraso batzordeko kide den Olatz Malaxetxeberriaren kontaktua pasa zidan, euskal hiztun bakarra zela azalduz. Astebete beranduago gelditu nintzen Olatzekin elkarrizketei hasiera emateko, eta halaxe izan zen. Gainera, guraso batzordeko beste bi kideren kontaktua pasatu zidan, eta beraz, eurekin ere elkarrizketako eguna eta ordua zehaztu nituen: Elixabete Garcia eta Tavita Cortes.

Bien bitartean, elkarrizketak transkribatu ahala, erreportajeak zein egitura izan zezakeen pentsatzen hasi nintzen tutorearekin batera. Testu nagusia eskolako ordutegiaren arabera zehaztea erabaki genuen, txirrina aldaketaren metafora gisa erabiliz. Hori dela eta, tarteki desberdinak daude testu nagusian, orduen bidez banatuta.

Sarrera idatzen hasi nintzen eta ostean iturri dokumentalen bidez jasoak nituen informazioak; besteak beste, immigrazio mugimenduei buruzko datuak edota Miribilla eskolako ikasleen jatorriek immigrazioarekin eduki zezakeen lotura. Horrez gain, Amelia Barquinek idatzitako testu bat ere irakurri nuen eta bera elkarrizketatzea erabaki. Bere kontaktua lortu eta apirilaren amaierarako finkatu genuen elkarrizketa *Mondragon Unibertsitateko Hezkuntza eta Humanitate Zientzien Fakultatean*.

Amelia Barquini egin beharrezko elkarrizketa prestatu bitartean, eskolako irakasle den Enrique Castelo ere elkarrizketatu nuen; baita Izaskun Alonso eskolako zuzendaria eta Arantza Barturen jangelako arduraduna ere. Behaketa lanak ere apirilean egin nituen, astebeteko tartean; bata, lehenengo mailako D ereduko ikasgelan; bestea, bosgarren

mailako D ereduko ikasgelan. Bertan ikasleekin ez ezik, bertako tutoreekin bi egunez gozatzeko aukera izan nuen.

Lehen eskuko informazio asko nuela konturatu nintzen, eta beraz, guztia erreportajea zela txertatuko nuen erabakitzen hasi nintzen. Atal bakoitzean beraz, eskolako komunitatea osatzen duten subjektu desberdinei garrantzia ematea erabaki nuen. Adibidez, klase orduetan irakasleen eta ikasleen esanak nagusituko dira; eskola ordua amaitutakoan berriz, gurasoenak.

Maiatzaren erdialdean bidali nion behin behineko erreportaje idatzia tutoreari, hark zuzendu eta bere ekarpenak egin zitzaizkan. Bien bitartean, aurretik hasita nuen memoria osatzen jardun nuen, falta zitzaizkidan puntuetan informazioa idazten. Gainera, elkarrizketa bat gehiago ere egin nuen maiatzean, *Save the Children* gobernuz kanpoko erakundeko Iñaki Alonsori.

Zailtasun handiena erreportajea amaitzeko eta memoria idazterako orduan izan dut, denboraz nahiko larri ibili bainaiz.

3. IKERTUTAKO KASUA: MIRIBILLA ESKOLA PUBLIKOA

3.1. Miribilla eskolaren ibilbide historikoa

Miribillako eskola publikoa Vitoria-Gasteiz etorbideko bosgarren zenbakian kokatuta dago; hain zuzen ere, Miribilla auzoan, Ibaiondo barrutian (Bilbo, Bizkaia). Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza eskaintzen dituen ikastetxea da.

Sorreraren lehen zantzuak San Frantzisko eta Zabala auzoetan aurki genitzake, garai horietan Miribilla auzoa ez baitzen existitzen. 2004.urtean San Frantzisko auzoko eskola Zabalakoarekin elkartu, eta San Frantzisko-Zabala eskola izatera pasatu zen. 2005.urtean berriz, Miribillako eskola gisa izendatu zuten eta urte berean inauguratu zuten gaur egungo eskolaren eraikina.

Enrique Castelo irakasleak garai horiek bizi izan zituen, San Frantzisko eskolako irakaslea baitzen. Hark dioenez, bi eskolen batzeak izaera politikoa izan zuen, erdal hitzun guztiak bertan sartu nahi izan zituztela gaineratuz. Irakasleek erabaki horren aurrean protesta egin bazuten ere, ez zuten ezer lortu eta politikariek aurrera egin zuten erabakitakoarekin.

Ijito komunitateko hurrek osatzen zuten ikasleriaren gehiengoa, Zabala eta San Frantziskoko bizilagunen gehiengoa bezalaxe. Hala ere, euren artean desberdintasuna markatzen ei ziren, batzuk besteak baino pobreagoak baitziren; ondoriz, lehen urteak gatazkatsuak izan ziren Miribilla eskolan.

Poliki – poliki, immigrazio mugimenduen hazkundearekin, ijito komunitateko kideekin batera jatorri ezberdinetako familien seme – alabak hasi ziren matrikulatzen Miribillako eskolan. Euretariko asko familiekin batera ailegatu arren euskal lurretara, beste asko jada Euskal Herrian jaiokoak ziren.


Gaur egun ijito komunitateko kideek (Euskal Herrikoak edo Estatu espainoetik zein Errumaniatik etorritakoak) osatzen dute ikastetxeko ikasleriaren gehiengoa; hala ere, afrikarren eta hego amerikarren kopuruak ere handiak dira.

3.2. Miribilla eskola: gaur egungo egoera eta jarduna

Miribillako eskola publikoa, eta aurrerago aipatu bezala, Bilboko Ibaiondo barrutian kokatuta dagoen ikastetxea da, Bilbo Zaharra eta San Frantzisko auzoen artean; hain zuzen ere, Vitoria – Gasteiz kalean. Hainbat jatorritako familien seme – alabak batzen


dituen eskola da, azken urteotako immigrazioek eragin zuzena izan baitute ikastetxearen matrikulazioetan.

Eskolako zuzendaritzak eskainitako azken datuen arabera, 2017 – 2018 ikasturtean matrikulatu diren ikasleak 270 dira: Haur Hezkuntza 106 eta Lehen Hezkuntza 164. Hala ere, kontuan hartu behar da A eta D ereduak eskaintzen dituztela Lehen Hezkuntzako mailetan; beraz, ikasleak hizkuntza ereduaren arabera banatzen dira.



Taula 3 - Miribilla eskolako matrikulazioa, 2017 - 2018 ikasturtean (Norberak egina)

Mailak eta ereduak aztertuz gero berriz, oraindik ere A ereduaren matrikulatzen diren ikasleak D ereduaren matrikulatzen direnak baino gehiago direla ondorioztatu genezake, salbuespenak salbuespen. Esaterako, hirugarren maila.



Taula 4 - Miribilla eskolako matrikulazioa, ereduak banatuta, 2017 - 2018 ikasturtean (Norberak egina)

Ikasleriaren kopuru gehiena osatzen dutenen jatorria ijitua da, alde batetik Euskal Herriko edo Espainiako ijito komunitateko kideak kontuan hartuz, eta bestetik, Errumaniakoak. Marokoarrak, aljeriarrak, boliviarrak eta nigeriarrak dira gainontzeko ikasle gehiengoaren jatorriak.

MIRIBILLA ESKOLAKO IKASLEEN JATORRIA ETA KOPURUA	
Jatorria	Kopurua (ehunekotan)
Ijito komunitatea (EH edo Espainia)	%43,14
Ijito komunitatea (Errumania)	%8,06
Maroko	%13,30
Aljeria	%5,64
Bolivia	%4,83
Nigeria	%4,03
Ginea	%3,62
Espainia	%3,22
Euskal Herria	%3,22
Senegal	%2,82
Ginea Bissau	%1,61
Sahara	%1,20
Kongo	%0,80
Kamerun	%0,80
Txina	%0,4
Venezuela	%0,4
Errumania	%0,4
Brasil	%0,4
Bangladesh	%0,4
Paraguay	%0,4
Honduras	%0,4
Nikaragua	%0,4
Portugal	%0,4

Taula 5 - Miribilla eskolako ikasleen jatorria, 2016 - 2017 ikasturtean (EH 11Kolore)

3.2.1. Lan dinamikak

Miribilla eskolak darabilen metodologia aztertu ahal izateko, ezinbestekoa da Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza banatzea, lanketa desberdinak egiten baitituzten umearen garapena helburu.

Haur Hezkuntzan bi, hiru, lau eta bost urte bitarteko zortzi gela daude ikastetxean eta soilik D ereduak eskaintzen dute. Lehen Hezkuntzan berriz, A eta D ereduak daude. Hori dela eta, lehenengo mailatik seigarrenera arte, maila bakoitzean eredu bakoitzeko ikasgela bana dago.

Haur Hezkuntzan umeei txokoka funtzionatzen dute. Eduki teorikoei baino, umeei interesatzen zaien horri eutsi ahal izateko gune desberdinak antolatzen dituzte ikasgela bakoitzean, ume bakoitzarentzat garrantzitsua zer izan daitekeen identifikatzeko.

Lehen Hezkuntzan berriz, txokoen dinamika jarraitzen dute, baina eduki teorikoagoetan sakonduz. Lehenengo eta bigarren mailetan, txokoak dituzte, mahaien bidez antolatuta. Dinamika honen helburu nagusia arlo jakin bat lantzen dutenean, txoko bakoitzean arlo jakin horretako atal bat lantzea da. Esaterako, Matematika landuz gero, txoko batean neurriak landuko dituzte, beste batean zenbakikuntza eta azkenengoan logika. Hizkuntzan metodologia bera jarraitzen duten arren, Natur eta Gizarte Zientziak elkarrekin lantzen dituzten ikasgaiak dira, elkarrekin sortutako proiektuei garrantzia emanez.

Hirugarren mailatik aurrera, ordea, txokoak desagertu eta taldeka saiatzen dira gai desberdinak lantzen, nahiz eta norbanako bakoitzaren hausnarketari ere garrantzia ematen dioten. Horrez gain, ikasgaien artean egon daitezkeen loturak lantzen dituzte ahal den heinean. Hau da, Natur Zientzietan ur prozesua landuz gero, Hizkuntzan aipaturiko prozesua oinarri duen testu bat irakurriko dute.

3.2.2. Euskararen garrantzia

Miribilla Eskolan, aurreraxeago azaldu bezala, Lehen Hezkuntzan A eta D ereduak ikasteko eskaintza dago. Haur Hezkuntzan, ordea, soilik euskaraz ikasteko aukera eskaintzen dute; hau da, D ereduak.

Eskolako zuzendaritzak eskaintako datuak aztertuz gero, hirugarren mailan ezik, gainontzeko mailetan A ereduak D ereduaren gainetik gailentzen dela ondorioztatu

daiteke, ikasle gehiago baitaude lehenengo aipaturiko ereduaren. Hala ere, egoera aldatzen ari da.

Eskolako komunitateak, eta batik bat irakasleek, D ereduaren aldeko apustua egitea erabaki dute, poliki – poliki A ereduaren ikasteko eskaintza albo batera utziz. Hori dela eta, zuzendaritzako kideek azaldu dutenez, sei kurtso barru ez da A ereduaren ikasteko aukerarik eskainiko. Euskara Euskal Herriko hizkuntza izanik, eskolan bertan aman komunean izan behar duten hizkuntza dela diote irakasleek.

Apustu nagusia aipaturikoa izan arren, badira bestelako proiektuak ere ikasleak euskarara gerturatzeko. Oztopoak oztopo, D eredukoekin uneoro egiten dute euskaraz eskolan, nahiz eta patioetan zein hizkuntza erabiltzen duten bermatzea zailagoa dela onartu. A eredukoekin ere hainbat dinamika egiten dituzte; besteak beste, astero, gutxienez, esaldi bat ikasten dute, nolabait euskara gertuago izaten ohitu daitezten.

3.2.3. Proiektuak

Egon daitezkeen aurreiritziei aurre egin eta eskolaren ikusgarritasuna bermatzeko, hainbat proiektu egin izan dituzte Miribilla eskolako komunitatea osatzen duten kideek. Horrez gain, Guraso Batzodeko amek ere hainbat dinamika burutu izan dituzte.

11 Kolore gizartean dagoen jatorri aniztasunaren inguruan hausnartu eta eztabaida sustatzeko asmoz jaio zen herri ekimena da. Euskal kulturari zein euskal gizarteari egin dakiokeen ekarpena dute abiapuntutzat bertako kideek. Hori dela eta, Miribilla eskolarekin elkarlanean, proiektu bat abiatu zuen.

Musika eta euskara batuz, integrazio positiboaren aldeko ekimen gisa, eskolako ikasle, irakasle zein gurasoen artean abesti bat ikasi eta kantatzea izan zen ekimenaren helburu nagusia. Atanbora zen abestiaren izena. Inguratzen gaituen aniztasunari egin dakiokeen ekarpen abersgarrietakoa.

Eskolaz kanpoko eragileekin egindako proiektuak ez ezik, eskola barnean sortutakoak ere ugari dira. Izan ere, Guraso Batzordeko amek hainbat ekintza egin dituzte euren presentzia, eskolaren ikusgarritasuna, bermatzeko. Esaterako, 2018ko maiatzean eskolaren egoeraren berri emateko eta bizi duten estigmatizazioa eta eskusio soziala salatzeke helburuarekin, rap bat egin zuten, errimaz – errima, Bilboko Udalarari zein Eusko Jaurlaritzari mezu zuzenak helaraziz.

3.2.4. Oztopoak

Gauzatzen dituzten proiektu gehienak, eskolaren ikusgarritasuna bermatzeko helburuarekin egindakoak dira. Gizartean dauden susmo eta aurreiritzi guztiei erantzun bat emateko asmoz sortzen dituzte dinamikak, hainbat familiek (gehienak euskaldunak) eta bestelako norbanakoek dituzte usteak albo batera uzteko.

Azken urteotan, familia euskaldun eta klase ertainekoak euren seme – alabak beste ikastetxe batzuetan matrikulatu dituztela salatzen dute Miribilla eskolako kideek zein adituek, klasismoa edota aporofobia (hots, pobreenganako fobia) bezalako kontzeptuak erabiliz.

4. ONDORIOAK

Lan honen bitartez, euskara integraziorako tresna gisara erabiltzen duen kasu zehatza aztertu nahi izan da, hain zuzen, Miribillako eskola publikoaren kasua. Jatorriak sortutako segregazioak (kasu batzuetan, sozioekonomikoa ere) zer ondorio dakartzan aztertu nahi izan da, aurreiritziak alboratuz eta gizarteari bestelako ikuspegi bat eskainiz; euskarak hezkuntzan baztertuak dauden taldeentzat ere suposatuz dezakeen abantailen inguruko hausnarketak bideratuz finean.

Azterketaren helburuetako bat azken hiru urteotako immigrazio datuek eta ikasleen jatorriek harremanik ba ote duten aztertzea izan da, bien artean konparaketa bat eginez. Azkenean, *Ikuspegik*, Immigrazioaren Euskal Behatokiak eskainitako datuei esker, lotura badagoela ondorioztatu ahal izan da. Ikasleen matrikulazio kopurua eta jatorria oinarri hartuta, hirutik bi dira Bilbora immigratu duten etorkin kopuru handienetako kolektiboen parte; hain zuzen ere, marokotarrak eta boliviarrak.

Horrez gain, euskara integraziorako tresna izan daitekeen aztertzea izan da xede nagusia, aurrerago azaldu bezala. Eskolako komunitateko kideei zein adituei eginiko elkarrizketen bidez eta behaketa egunean ikusitakoaren ondorioz, euskara integraziorako tresna izan daitekeela azaleratu dela uste da. Adibide bat jartzearren, Miribilla eskolan D ereduaren aldeko apustua egin dute; beraz, sei kurtso barru ez da A ereduaren ikasteko aukera eskainiko.

Miribillako eskolaren etorkizuna D eredurantz doa, D ereduaren familia eta umeak pozik egoteko estrategiak sortu eta bideratu dituzte. Euskarak urrundu baino, komunitateak hurbildu egiten dituela da euren tesia. Komunitate gutxitu hauentzako euskara abantaila bat da, edo izan behar da. Hori da Miribillako Eskola publikotik lortu nahi dena. Gure hipotesi nagusia beraz, baieztatu da. Miribilla eskola era positiboan ari da euskararen aferari erantzuten, sei ikasturte barru A ereduaren desagertu eta soilik D ereduaren ikasteko aukera eskainiko baitu. Gurasoen erantzuna ere gainera, geroz eta positiboagoa da, poliki-poliki Lehen Hezkuntzan gehiengoak D ereduaren matrikulatzen baitituzte euren seme-alabak. Erreportaje hau burutzeko egin diren elkarrizketa eta behaketetan jasotako informazioari esker, euskara eskolaren barnean jatorri eta ohitura desberdinetako ikasleen arteko kohesiorako ezinbesteko tresna izan daitekeela ondorioztatu da.

5. AZKEN GOGOETA

Gradu Amaierako Lana egin ahal izateko gaia aukeratu ostean, ez nintzen urduri jarri, ez baitezaidan lan nekeza iruditzen. Hala ere, onartu beharra daukat behin lanean hasi ostean, uste baino lan gehiago egin behar izan dudala. Gainera, berandu hasi nintzen lanean eta beraz, denboraz justu ibili naiz.

Lana egin aurretik, helburu jakin batzuk zehaztu nituen, baina horietako batzuk ezin izan ditut aurrera atera. Esaterako, hasierako helburuetan elkarrizketatu bakoitzaren profilak zehaztu nituen, irakasle, guraso eta ikasleenak; hala ere, ez da posible izan zehaztuak nituen profiletako subjektu jakin batzuk elkarrizketatzea. Gurasoetan ezin izan dut Guraso Batzordekoa ez den kiderik elkarrizketatu, prestutasunik ez baitute erakutsi; umeetan berriz, ezin izan ditut ikasleak elkarrizketatu, adinez ez baitira nagusiak eta babes berezia dute. Oztupoak oztopo, eurekin ikasgeletan egoteko aukera izan dut.

Horrez gain, egin ditudan elkarrizketa batzuetan ere arazoak izan ditut hizkuntzarekin, zortzi elkarrizketetatik lau gazteleraz izan baitira (Enrique Castelo, Iñaki Alonso, Elixabete Garcia eta Tavita Cortes); beraz, nekezagoa izan da galdetu nahi niena azaltzea, ez bainago ohituta gazteleraz hitz egitera. Hala ere, hori alde batera utzita, hainbat kide izan ditut bidelagun; jatorri, adin eta profil desberdinetakoak. Ez dut inolako arazorik izan, guztiek esku zabalik hartu bainaute, eskuartean izan dudana proiektuaren parte izateko gogotsu egon dira asko eta asko. Hitzetatik ekintzetara pasatu beharra dago, teoriatik praktikara, inguratzen zaituenaren jabe egin beharra dago.

Edukiarekin izan ditudan arazoekin amaitzeko, Miribilla eskolako matrikulazioei buruzko txostenak lortzeko izan ditudan zailtasunak aipatuko nituzte. Ikasturte osoan zehar ikasleen joan – etorriak egoten dira, eta beraz, matrikulazio kopuruak eguneratuta edukitzea zaila izaten da. Hala ere, azkenean 2017 – 2018ko ikasleen matrikulazio datuen dokumentu bat lortu dut eskolako zuzendaritzari esker.

Erreportajea idazterako orduan izan ditudan arazoei eutsiz, lehenengo eta behin erreportajea egituratzea kostatu zaidala esango nuke, ez bainekien zein estilo jarraitu azaldu nahi nuena kontatzeko. Hala ere, tutoreak asko lagundu dit eta berari esker ideia finko bat edukitzea lortu dut.

Horrez gain, lehen eskuko informazio asko nuela konturatu nintzen, elkarrizketak uste baino luzeagoak izan baitziren. Beraz, elkarrizketak inprimatu, garrantzitsuena azpimarratu eta hala ekin nion informazio guzti horrekin puzzlea egiten hasi eta erreportajea idazteari. Poliki-poliki, erreportajea findu eta amaitzea lortu dut.

6. ERREFERENTZIAK

6.1. Lehen eskuko iturriak

Alonso, Iñaki. 2018ko maiatzaren 14a, Save the Children Euskadi gobernuz kanpoko erakundearen bulego (Bilbo, Bizkaia)

Alonso, Izaskun. 2018ko apirilaren 19a, Miribilla Eskola (Bilbo, Bizkaia)

Barquin, Amelia. 2018ko apirilaren 26a, Mondragon Unibertsitatea, Hezkuntza eta Humanitate Zientzien Fakultatea (Eskoriatza, Gipuzkoa)

Barturen, Arantza. 2018ko apirilaren 19a, Miribilla Eskola (Bilbo, Bizkaia)

Benitez, Mari Luz. 2018ko apirilaren 18a, Miribilla Eskola (Bilbo, Bizkaia)

Castelo, Enrique. 2018ko apirilaren 10a, Miribilla Eskola (Bilbo, Bizkaia).

Cortes, Tavita. 2018ko martxoaren 6a, Miribilla Eskola (Bilbo, Bizkaia).

Garcia, Elixabete. 2018ko martxoaren 6a, Miribilla Eskola (Bilbo, Bizkaia).

Mamaxetxeberria, Olatz. 2018ko otsailaren 26a, Abusu (Bilbo, Bizkaia).

Rojo, Aintzane. 2018ko apirilaren 11a, Miribilla Eskola (Bilbo, Bizkaia)

6.2. Bibliografia

Amelia Barquin. (2017). Euskara, generoa, klasea eta jatorria eskolan. zenbait gogoeta. *Hizkuntza, generoa, klasea eta jatorria elkargunean* (pp. 107-130). Andoain: Jakin.eus.

Aztiker Soziologia Ikergunea (2018). *HEZKUNTZA ESPARRUA ETA EUSKALDUNTZEA EAEn (1983-2016) Euskararen Erabilera Normaltzeko Legea eta 138/1983 Dekretua onartu ondorengo bilakaera eta beren eragina gazteen euskalduntzean*

Goikoetxea, G. (2018). Ikasleen erdiak, euskaldundu gabe. *Berria.eus*

Goiti, N. (2018). Aniztasuna, euskara eta eskola publikoa osagai dituen errezeta eredugarria. *Nai.eus*

Martinez, L. , Ferrer, A. , Alonso I. (2018). *Nahastu nirekin* (Save the Children España)

Martinez, M., Gomez, D (2012). *Intercultural policies in a multicultural neighbourhood: Experiencies in three primary schools in San Francisco, Bilbao*

Miribilla rules. Euskal Herria 11 Kolore (2017). Bideografik Ekoizpenak

7. ERANSKINAK

7.1. Elkarrizketak

Olatz Mamaxetxeberria – Guraso Batzordeko kidea

Ni Olatz naiz, Miribilla eskolako ama. 40 urte ditut. Nire semea Yazin da, 5Dko ikaslea. Duela bi ikasturte gaude bertan, Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik. Auzoan bizi gara, Iturburu kalean (Bilbo zaharrean, San Anton zubi ondoan). Dagokigun eskola bera da, Miribilla eskola.

Matrikulazio epea zabaldu zenean, 2015eko irailean hasi zen Yazin eskola hartan. Garai horietan hirugarren eta laugarren mailak batera zeuden, ume kopuru gutxi zeudelako. Gurasoak pixka bat kezkatuta egon ziren, baina tira, ni neu ez nintzen kezkatu irakaslea naizen aldetik, niretzat positiboa zen. Larritzekoa, agian, bakarrik hamabi ume zirela klasean.

MOTIBAZIOA eta OZTOPOAK

Zure alaba/semea eskolatzeko garaian, zeintzuk aukera zenituen buruan?

Hiru aukera nituen buruan. Gainera, adopzioa den heinean, kasu berezia zen. Nik nahi nuen eskolan sartu nezakeen Yazin. Bizkaiko Foru Aldundiak lagunduta, edozein eskoletan sartu nezakeen. Kasu berezi bat da.

Hiru aukera nituen: Atxuriko eskola, nire etxearen parean dagoena; Miribillako eskola, auzoari dagokiona; eta azkena, nik lan egiten dudan eskola, Abusun, apurtxo bat aparteago dagoena. Buelta batzuk eman nizkion buruari, lan egin izan dut Abusun zein Atxurin.

Iruditzen zitzaidan, semea eta ama eskola berean egotea ez dela beti positiboa; esaterako, nire ama nire irakaslea izan zen, eta hori bizi ostean, erabaki honen alde ez egitea erabaki nuen. Atxuri edo Miribilla aukeratzeko garaian, beraz, pentsatu nuen lehenengo gauza niri zein dagokidan izan zen: Miribilla.

“Nik sinesten dut aniztasunean, ni, pertsona bezala, honen aldekoa naiz? Bai, ba aurrera! Zertarako eraman behar du Atxurira? Badakit, irakasle bezala, ze profil dagoen Atxurin, baina aurrera, Miribillara”.

Hasieran hainbat gauza pasatzen zaizkizu burutik. Ama berria naiz, ez naiz hasten txikitatik, eta norberaren kezka agertzen dira; baina edozein eskoletara joanez gero, gauza berbera gertatuko litzaidake. Orduan, irakurri nuen apur bat, kotilleatu nuen Interneten eskola, ikusi nuen lip-dub-a eta bestelako proiektuak... eta, ikusi nuen proiektu horren erabat alde nengoela. Aurrera!

Zerk bultzatu zintuen azkenean zure alaba/semea Miribillako eskolan matrikulatzera?

Lehenengo eta behin, nire auzoko eskola publikoa dela. Horrekin ia, niretzat, puntu guztiak ditu. Nire semea ere auzoan haztea eta heztea nahi dut, auzoko lagunak egitea, eta auzoko jendea ezagutzea. Beraz, auzoko eskola publikoaren alde egin behar nuen. Ostean ikusi nuena, mundu mailako aniztasunak, ilusioa egin zidan. Errespetua ere bai, baina irakaslea izanda, badakit alboko eskoletan dauden irakasleak, normalean, oso irakasle inplikatuak direla (eta horrekin ez dut esan nahi gainontzeko eskoletakoak ez direnik inplikatuak).

Aurreiritzietatik abiatuz, zeintzuk ziren Miribillako eskolara bidaltzearen alde onak? Eta aldi berean, aurrez pentsatutako oztopo potentzialak?

Alde onak asko izango lirateke. Lehenengo eta behin, auzoko eskola izatea; eta bestetik, bere aniztasuna. Aniztasuna esaten dudanean, adierazi nahi dudana da munduko hogeit hamar pertsonak bizi direla bertan. Egunero: “Ostras, aniztasun hori non aurkituko duzu?”. Munduari buelta eman beharrik ez dago, listo, hor dago.

Oztopoak. Noski, hartu nuen erabakia ez nuen “a la ligera” esaten dena, pentsatu behar da. Norberaren printzipioengatik erabaki nuen aurrera egitea.

ESKOLAK EGITEN DUEN LANA

Eskolaren berezitasunetako bat da aniztasunean oinarritutako bizikidetza positiboen alde egiten duen lanketa. Zein modutan iruditzen zaizu zuri egiten dutela lanketa hori batez ere? Eskoletako parte-hartze dinamikak, jolastorduetan, zuk dakizkizu metodologiak...

Nahi ala nahi ez, elkarbizitza lantzea beharrezkoa da. Bakoitza mundu desberdinetik gatoz, arbaso desberdinak, kultura desberdinak; eta guztiak, bertan elkartzen dira. Hori kudeatu beharra dago, errespetuz, elkar ezagutzaz, etab. Denak berdinak diren gela

batean ez dago lar ikasteko, denak doaz leku berdinetara, dentista berberarengana. Ez dago ezer berririk.

Miribillako eskolan munduan kokatzen ikasi behar dugu. Errealitate desberdinak ulertu, gainontzeko errealitateen jakitun egin behar da. Espero dut, nire semea, nagusia denean, guzti horren jakitun izatea; orain ez dakit, kontziente izango da, baina uste dut bere hazte pertsonalean, egoera honek eragin positiboa izango duela.

Non edo zelan igertzen duzu lanketa hori zure alaba/semearengan?

Nik uste dut nire semeak pila bat ikasi duela. Ez liburutan, ez ezer; soilik, historiaz jakitea pixka bat. Besteen errealitatez jakitea apur bat, ijitoen munduaz, flamenkoa, errealitate desberdinez.

Ikasi baino, egoerez jakitun egiten da: flamenkoaz, gainontzeko herrialdeen errealitateaz (Jose Eduardo / Socrates).

Euskara harremantzeko “tresna” gisa darabilte. Zein modutan iruditzen zaizu sustatzen dutela euskara euren eskola orduetan, jolastorduan, ikasleekin dituzten eskola dinamiketan oro har?

Hizkuntza nagusia euskara da D ereduko geletan. Hor sendatzen ari den zauritxo bat daukagu. A ereduko eskola bat izan da, eta hori errealitate bat da. Oraindik ere, ikasturte batzuetan badaude A ereduko gela batzuk; eta ondorioz, batzuetan, nola edo hala, euskaraz gehiago bizitzeko aukera oztopatzen du nire ustez. A ereduko ume zein irakasleen jarrera zein den ere kontuan hartu behar da.

A ereduaren existentzia oztopoa bada ere, desagertzeaz dago. Haur Hezkuntzan jada ez dago A eredurik, ezin duzu eredu horretan matrikulatu. Oker ez banabil, bigarren mailatik aurrera daude soilik A eta D ereduak.

Ume kopuru gutxi daudenez, edozein irteeretan, elkarrekin irteten dira kanpoan eta beraz, euskararen erabilera zailtzen da. Zaila da euskaraz oso gutxi dakiten umeekin guztia euskaraz egitea. Hala ere, denok dakigu, denok kontrolatzen dugu. Baina tira, esandakoa, A ereduak desagertzeaz dago eta euskararen presentzia gero eta handiagoa da. Euskara eta bestelako proiektuak batzen ditugunez (euskara eta flamenkoa, adibidez) ezagutza eta erabilera handiagoa da; horren adibide da, 11Kolore.

Nola da posible abesti batek gu guztiok batzea? Musika, agian, ez bada euskara, gaztelania, ijitua, senegaldarra, musika denon hizkuntza da. Niretzat hori super polita da.

Zein emaitza iruditzen zaizu duela / Zelan eragiten dio lanketa horrek zure alaba/semeari?

ESPERIENTZIAK (Positiboa zein negatiboa)

Eskolak berak hainbat proiektu eramán ditu aurrera; horietako asko, gurasoekin elkarlanean. Esaterako, 11Kolorerekin batera Atanbora abestia kantatzeko aukera izan zenuten guztiok batera, egun esanguratsu batean gainera. Parte hartu al zenuen? Nolakoa izan zen esperientzia?

- **Eta bertan egon ez bazinen, zein iritzi duzu halako proiektuei buruz? Zergatik hartzen duzu parte / edo, ez duzu hartzen?**

Nik ama moduan, esango dizut, 11Koloreren esperientzia ederra izan zela. Hasieran galdetzen geure buruei galdegiten genien ea benetan egingo genuen kontua zen. Guk gure umeei buruz hitz egiten dugu askotan, ijituekin edo hegoamerikarrekin dagoela, indioekin dagoela,...; baina, ba al dakizu nik ere zenbat ikasi dudan?

Han egonda, guraso batzordean egon edo ez, zenbat errealitate ikusi ditudan. Astean behin edo gehiagotan gelditu izan gara, hiruretan, bakoitza bere “pedradarekin”, kantaren letra euskaraz; eta gainera, euskaraz zekien ia-ia bakarra ni neu. Guztiei letrak zer esan nahi duen azaltzen, bakoitza bere erritmorra. Abestea gustu hutsa izan zen.

Esperientzia super positiboa izan zen, gainontzekoen errealitatea ezagutzea. Pentsaerak, txisteak, elkar bazileoa; beti ere, errespetu maila batean abestia ikasten eta abesten.

Beraz, konpromiso maila nahiko handia duzu, ezta?

Aniztasun honen baitan, hainbat hizkuntza dira protagonista; hala ere, aparteko lana egiten duzue euskara txertatu al izateko. Zein da horretarako erabiltzen duzuen metodologia? Ekintzak ere egin dituzue; esaterako, LIP DUB-a.

Kanpainak egiten ditugu. D ereduokekin, berriz, eskolan guztia euskaraz egiten dugu, nahiz eta kurtso hasieran oso zaila izaten den. Etxetik etortzen dira, hilabeteetan euren ama hizkuntzan egin ostean; eta beraz, beste eskoletan baino gehiago kostatzen zaie berriz ere euskarara moldatzea, agian hiru hileko bat. Urtarriletik aurrera jada euskara gertu edukitzera ohituta daudela igartzen da. Badakite baina kanporatzea kostatzen zaie; dena den, orain dela hiru urtetik ezagutzen dut eskola hau eta oso eboluzio positiboa ikusi dut hizkuntzan.

Gauean ere asko egon behar da, bestela erraz pasatzen dira gaztelerara. Patioetan, gainera, A ereduok egonda euren harremanak gazteleraz hitz egiten dira; baita jantokian ere. Euskara entzuten duten leku bakarra gela barrua izaten da, korridoretan gaztelera entzuten baita. Baina eboluzio positiboa ikusi dut arlo honetan.

Sarri esaten da jatorri desberdinak batzen diren ikastetxeetan, euskarak ez duela lekurik, ezinezkoa dela euskaraz ikastea. Zein da zuen iritzia halako kasuetan?

Ni ez nago horrekin ados. Euskal Herrian gaudenez, aman komunean eduki behar dugun hizkuntza euskara da eskola honetan. Hainbeste nazionalitate gela berdinean egonda lotzen duen puntua da.

Egia da zuzendaritza taldekook zein irakasleok nazionalitate eta identitate guztiak errespetatzen ditugula, baina eurak ere mentalizatuta daude euskara onartu behar dutela, gurea delako eta gure kultura delako.

Badira kasuak non euskaldun jatorria duten gurasoek euren seme alabak bestelako ikastetxetara eramaten dituzten, “euskaldunekin batu daitezen”.

Samaniego ikastetxea Gasteizen, kasu. Ezin daiteke esan ikastetxe honetan euskaldun jatorria dutenen portzentajea handia denik, 11Kolorek egindako azken txostenaren arabera, %3,22koa. Zein uste duzu dela beste eskola batera eroatea erabakitzen duten Miribillako familia euskaldunen motibazio edo pentsamendu/pertzepzioa? Zein da honen aurrean hartzen duzuen jarrera?

Guk gure bezeroak zaintzen ditugu. Guretzako pena bat da Miribilla auzo honek dituen baliabideak, familia perfil gazte eta euskaldunek, euren seme – alabak eskola honetara ez ekartzea.

Ikasturte honetan askotan entzun dugu auzoan Miribillako eskola, eskola normal bat bihurtzen ari dela. Tira, guk hori harro hartzen dugu, baina egia da matrikulazio datuek ez digutela arrazoirik ematen. Antzeko perfila dutenekin jarraitzen dugu, ijito kopuru handiak eta jatorri desberdinetako ikasleekin.

Baina lanean gabilta. Beste eskolek lantzen duten moduan lantzen dugu. Harremanetan jartzen gara beste eskolekin, eta nik uste dut proiektu zein metodologietan beste eskolekin parekatuta gaudela.

Gure ikuspuntua da eurak moldatu behar direla gurera, gure ekintzetara. Eskola hauek, agian, ijito kopuru handia zutenek, euren arauetara moldatzen ziren, edo beste eskoletan onartzen ez ziren arauak onartzen ziren. Esaterako, ez ziren noten bila etortzen eta onartzen zen. Baina orain oso serio jarri gara, derrigorrezkoa da seme-alaben eboluzioaren informazioa jasotzera etortzea. Familiak ere esan digute igartzen dela aldaketa bat dagoela. Behin arauak zeintzuk diren ikusita, eurak ere seguruago sentitzen dira, nahiz eta lehenengotan zuk onartu behar dituzula euren arauak esan. Kurtso hasieran oso gogor egin zaie hainbat familiei, baina poliki-poliki badoaz onartzen eta eskertzen. Guk hori positibotzat jotzen dugu.

Entzunda daukagu auzoko jendeak udaletxean beste eskola bat jartzea eskatu zuela auzoan. Honen erantzuna baina, Miribilla eskola hemen dagoela erantzun zieten. Familia gazteek, beraz, euren seme-alabak zentro pribatuetara eramaten dituzte, Ikastoletara... eta noski, horrek kostu ekonomiko handia eskatzen du.

Nik uste dut beldurra kendu behar dutela. Etortzen dira eskola ikustera matrikulazio garaian, baina gero, ez dute matrikulatzen edo bi eta hiru urteko geletan matrikulatzen dituzte. Hala ere, garbi dute gero beste eskola batera eramango dituztela umeak. Beraz,

beste erronka bat da hau. Propaganda egin behar dugu, eta orain sariarekin bagabiltza poliki-poliki.

Gure eskola zabalik dago uneoro ikusi nahi duen ororentzat. Etortzen direnek beti esaten dute ez dagoela hain txarto, ez dagoela borrokarik, lantzen dela. Noski, hori da gure helburua eta gu oso pozik gaude. Ez gara etortzen estresatuta eta ez gara joaten etxera estresatuta. Benetan ikusten dugu umeak pozik daudela. Badaude borrokak, noski, beste eskoletan egoten den bezalaxe.

Eboluzio positiboa ikusi da, nahiz eta asko falta zaigun. Horretan gabiltza.

ASEBETETZEA (edo ez)

Konparaziorik egin badaiteke, aurreko lan esperientziekin zein izango litzateke aldaketarik handiena? (Positiboa edo negatiboa)

Hemen sekulakua izan dala esan.

ESPERIENTZIA

Asebetetzearekin lotuta egon daitekeen arren, pertsonalagora jauzi eginez. Zer da esperientzia honekin ikasi duzuna? Gizartearentzako aholku bat?

Ni hona “definitiba” moduan etorri nintzenean, “Miribilla eskolara noa, ai ama” pentsatzen nuen. Hala ere, hemen sartu nintzenetik hona pila bat ikasi dut.

Ikasleengandik asko ikasi dut, zela landu daitezkeen gauzak kultura desberdinak batzen diren gela batean, nola ailegatu ahal garen ume bakoitzarengana; hau da, ni egon nintzen aurreko urtean hamabi umeko gela batean eta sei nazionalitatekin, eta nire burua ezagutzen ikasi dut, dibertsitatea ikusita bakoitzarengana ailegatzeko gai naizela ikusi dut, zer behar duen ume bakoitzak eta bakoitzaren etxeko egunerokotasunari erantzuna ematen + hor dagoen pertsona errespetatu. Pertsonak dira, eta gu hona ez gatoz bakarrik zenbakiak ikastera. Emozionalki eskola honek eman didana ez dit ezerk eman.

Nire burua ezagutzen, umeak errespetatzen, emozioekin jokatzeko... Beste eskoletan esaterako, Haur Hezkuntzako ume batentzako saririk politena kroma bat izan zitekeen, edo zerbait materiala. Hemen ez, hemen besarkada bat da. Etxean dituzten hutsuneak hemen betetzen dituzte. Hau niretzako izan da onena, eta ez daukat asmorik joateko.

Gizarteari beraz, hemendik urte batzuetara ikusarazi nahiko genioke hau eskola normal bat dela, eta seme-alabak matrikulatu behar dituztela, plazak badaude eta.

Miribillako ikastetxea esaldi batean definitzea eskatuz gero...

Aniztasuna. Aniztasuna, bai. Ui, eta orain emozionatu naiz.

Arantza Barturen – Miribilla eskolako jantokiko arduraduna

Ni Arantza Barturen naiz. Gorputz heziketako irakaslea banaiz ere, gaur egun jantokiko arduraduna naiz.

Hasi nintzenetik hona gauza asko aldatu dira. Hemen etnia asko daude, beraz, noski, euren arteko integrazioa lortzeko eskola hau oso positiboa da. Eurek ez dute kontuan hartzen bata edo bestea zein motatako erlijiotakoa den, eurak umeak dira eta umeek bezala jokatzen dute.

Kontuan eduki behar da etxean zer nolako maila dagoen, eta guzti hori umeek patioan plasmutzen dute. Jantoki ordua tarte oso luzea da, ordu t'erdikoa, eta tarte horrek askotarako ematen du. Beraz jantokitik lan asko egin dugu: tailer emozional bat, musika terapia bat... Pixka bat ume “konfliktiboak” lasaitzeko erabiltzen ditugun proiektuak dira, edo barruan dituzten ardura edo sentimenduak pixka bat kanporatzeko. Horrez gain, laguntza asko ditugu. Ludoteka eta plastika ditugu, eskolako irakasleek ematen dituztenak. Horri esker, asko jaisten da jantokiko ume kopurua.

Gehien bat futboleko jokatzen dute, “es el deporte rey de Miribilla, del Nervión y de Santurtzi”. Hala ere, egiten ditugu beste ekintza batzuk ere. Esaterako, joan zen urtean, Ikastolen elkarteko institututik etorri ziren. Raul izeneko irakasle bat jarri zen nirekin kontaktuan ea gure eskolara praktiketara etorri ahal ziren galdezka, eta primeran! Eskola osoko umeek hartu zuten parte. Jolas bideratuak ziren, gazteek prestatutakoak. Astean bi aldiz etortzen ziren eta oso ondo atera zen proiektua. Aurten ere etortzekoak ziren, baina azkenean ez da posible izan. Jolas bideratuak mugikorrek badira, umeek parte hartzekoak, gustura egoten dira.

Euskal dantzak edota reggaeton-a ere egiten ditugu jantokiko orduan. Iaz Shakira eta egiten ziren, asko gustatzen zaielako dantza egitea; baina aurten pixka bat gurea dena bideratzea erabaki dugu, bestela hemen beti dago “riki-riki, raka-raka” (eta txaloak jotzen ditu bien bitartean). Aurten euskal dantza bat egingo dugu kurtso bukaerako jaialdirako.

Eta halako gauza txikiak antolatzen ditugu jantokiak. Emozionalki gaizki ikusten ditugun umeak ezagutzen saiatzen gara, eta ahal dugun neurrian, laguntzen. Begirale batzuk asko asko laguntzen dute eta ni neu oso pozik nago.

Hau nire bosgarren urtea da. Lehenengo urtean Gorputz Hezkuntzako irakaslea izan nintzen, nire plaza hori baita, baina jantokiko plaza gelditu zen libre eta nire arazo pertsonalak direla eta, hura hartzea erabaki nuen, nahiz eta nahiago dudana gorputz hezkuntza. Hala ere, oso pozik nago jantokian ere.

Eboluzioa ikusten da. Aurtengo urtea, esaterako, hasieran oso txarra izan zen, “una selva”. Kontaktua ipini eta sua sortzen zen, baina kurtsoak aurrera egin ahala, bagoaz su hori pixka bat itzaltzen.

Beste batzuetan laguntzaile bat dugu, Julio, eta psiko gelara eramaten du noizbehinka umetxo bat, ondo portatzen denean. Sentimenduak askatzen dituzte bertan. Azken finean, umeak askatu egin behar dira hemen, etxean konfliktoak dituzten umeek barruan dutena hemen askatzen baitute. Guzti hori pixka bat bideratzen saiatzen gara. Tailer emozionala egin dugu aurtan, fitxekin eta lantzen genuen. Baina mugimendu gabeko lan bat denean, aspertu egiten dira. “El desfoje” esaten dena behar izaten dute. Musika ere asko erabiltzen dugun tresna da, eurei asko gustatzen zaielako.

Poliki-poliki bagoaz egoerak bideratzen. Nahiko lasai dago momentu honetan egoera.

(Gainera ijito guztiak dira “primos hermanos”, eta oso barneratuta daukate hildakoen kontzeptua. Beti esaten diet hildakoak uzteko bakean, nahikoa dela. Eskudo moduan erabiltzen dute hildakoen kontzeptua, “a maldecido a mis muertos” esanez, hamar urterekin. Euren kultura oso barneratuta daukate, baina eurek nahi duten moduan hartzen dute)

Amelia Barquin – Mondragon Unibertsitateko irakaslea

Definizioak

Eskola zer den galdetu, eta hainbat dira eman daitezkeen definizioak. Batzuentzat, ikasteko tokia izan daiteke, ikasle eta irakasleen arteko harreman bertikal hutsa; beste batzuentzat, berriz, etxeko egoeratik irteteko iheshidea. Eskola zer den definitzeko eskatuko banizu, nola definituko zenuke?

Nik uste dut eskolak proiektu sozio-educatiboak izan behar direla, non hezkuntzari zein gizarteari dagokiona lotuta joan behar diren.

Eskolak badu funtzio bat umeen garapenari lotuta, umeen gaitasunak ahalik eta modu osatuenean garatu ahal izateko. Noski, horretan eskolak umeari lagunduko dio; hala ere, ume horiek ez daude bakarrik. Talde bat osatzen dute, gizartearen parte dira; beraz, ezaugarri batzuekin joaten dira eskolara. Eskolan gizarteari begira garatzen dituzten kompetentzien arabera, modu batean edo bestean txertatuko dira. Aipaturiko bigarren parte eskolari ez zaio ahaztu behar.

Proiektu interesgarrietan, eskola interesgarrietan, bi alderdi horiek elkarrekin doaz.

Eta aniztasuna definitzeko eskatuko banizu, zer esango zenuke?

Gizakien ezaugarri gisa definituko nuke. Desberdinak izatea, anitzak izatea, gizartearen ezaugarri bat da. Gizaki bakoitzak ezaugarri propioak dituela ez da ahaztu behar. Ezaugarri batzuk partekatuta daude, gizakia talde baten partaide den heinean; hala ere, bera gizabanako moduan bakarra da, bere ezaugarri guztiekin. Ez dugu ahaztu behar pertsonen artean gehiago dela batzen gaituena bereizten gaituena baino. Batzuetan enfasi handia jartzen dugu desberdintasunetan, eta kulturarteko hezkuntzatik badago lelo bat: arreta gehiago jarri behar da partekatzen dugun horretan. Gauza garrantzitsuena partekatzen duguna da, bestela despistatu egin gaiteske.

Desberdintasunek arreta merezi dute, baina alderdi partekatuak ahaztu gabe. Denok dauzkagu premia, amets eta erronka berberak bizitzan. Hori nola egokitzen edo garatzen den desberdina izan daiteke, baina funtsean, gizakiak garen heinean, oinarrizkoak diren gauzak partekatzen ditugu.

Gizartean, eta batez ere, hezkuntza sisteman, ondorengo ideia zabaldu da: aniztasuna altxor bat da, zerbait positiboa. Ideia hori oso ondo dago, interesgarria da. Hori, ordea, esaten dugun gauza bat da, baina praktikan horren garbi erakusten ez duguna. Eskolan bertan, irakasle on diskurtso politikoki zuzen horretan, aniztasuna positiboa dela esaten dugu, baina irakasle askok nahiago izaten dute aniztasun gutxiko ikastetxeetan lan egin, non denak zuriak, klase ertainekoak eta “autoktonoak” diren.

Oraindik diskurtsoetik praktikara jauzi bat dago. Ea amildegi hori apurka-apurka desagertzen joaten den.

Behin eskola eta aniztasuna definitu ostean, zein da bien artean egingo zenukeen uztarketa lehen hezkuntzako ikastetxeak oinarri? Zerbait gehituko al zenioke kontzeptuari?

Aniztasuna eskolaren parte bat da. Gero eta eskola zein irakasle gehiago dabilta urratsak ematen aniztasunari trataera hobeagoa emateko. Izan ere, oraindik gure gizartean aniztasuna ia-ia madarikazio bat da; adibidez, jendeari jatorria nabaritzen bazaio, jatorrizko herrialdean bezala janzte bada, hango gauzak sukaldatzen baditu, edo erlijioa mantentze badu eta nabaritzen bazaio, “autoktono” batzuei kezka sortzen zaie. Aniztasuna errespetagarria dela erreza da esatea, baina gero tira-birak sortzen dira gizartean, ez baita horren garbi ikusten praktikan.

Ikerketak

Hainbat dira aurrera eraman dituzun ikerketak, non besteak beste, eskola, jatorria edota hizkuntza bera aztertu dituzun. Esaterako, *Hizkuntza, generoa, klasea eta jatorria elkargunean* liburuan, euskara, generoa, klasea eta jatorria eskolan aztertu zenuen. Zein da atal horretatik atera nahiko zenukeen ondorio nagusia? Zelan erkatzen dira Euskal Herriko hezkuntza sistema publikoan?

Hor bada ondorio bat. Hezkuntza sistemarekin lotuta, eskolari “enkarguak” egiten zaizkiola esaten nuen aipaturiko artikuluan. Euskararen, kulturartekotasunaren, generoaren enkargua egiten zaio. Gizartean gai horiek garapenean daude; eta beraz, eskolari garapen horretan ekarpen sendoa egiteko eskatzen zaio, nolabait, gizarteari laguntzeko. Euskara, esaterako, normalizazioaren bidean dago; hori horrela, eskolari inplikazio handia eskatzen zaio laguntzeko. Generoaren aldetik, formalki parekidea den gizarte batean bizi bagara ere, badakigu ez dela horrela; beraz, eskolari arlo horretan ere hezkidetzak praktikan jartzeko eskatzen zaio. Kulturartekotasunean, berriz, jatorriarekin lotutako aniztasunari dagokionean, tira birak sortzen dira gizartean. Eskolari kulturarteko hezkuntza martxan jartzeko eskatzen zaio. Guzti horiek enkargu potoloak dira eskolarentzat, eta batzuetan eskolak bakarrik ezin die erantzun horiei. Gizartean ere eragileek aipaturiko arloetan ekarpena egitea beharrezkoa da.

Klase sozialarena, ordea, nire ustez ez da eskolari egiten zaion ekarpen bat. Naturalizatuta dago desberdintasun sozio-ekonomikoa, normaltzat hartzen da batzuk egoera ekonomiko onean eta beste batzuk txarrean. Horrekin lotuta, eskolari ez zaio

ezer esaten. Ikastetxearen eta irakaslearen sentsibilitatearen arabera hobeto kudeatuko dituzte desberdintasun ekonomikoak, edo okerrago. Landu beharko genukeen gaia dela uste dut.

Ikastetxeak momentu honetan, gainera, gotorleku bihurtzen hasi dira batzuentzat. Klase ertaineko kideendako ikastetxeak daude, eta pobreentzako ikastetxeak daude. Egoera gero eta argiagoa, exajeratuagoa da. Egun honetan atera da Save the Childrenek egindako txostena, eta berriro salatzen dute egoera. Binarizazioa gero eta gordinagoa dela esaten dute bertan.

Gaur egun enkargu horiek Euskal Herriko hezkuntza publikoan txertatzeko... Hezkuntza sistema enkargu horiek egiten ari da, sekulako lana; eta segur aski, oraindik ere lan handiagoa egin dezake aspektu guztietan. Horretarako enfasia baliabideetan eta formazioan jartzen dut.

Irakasleek formazio iraunkorra behar dute, alderdi horien kudeaketa nola egin zehazteko pentsatzen eta ikasten jarri behar da, ikerketen emaitzak eta ondorioak jaso behar dituzte. Baliabideek ere garrantzia dute. Aniztasunak ahalegin estra bat eskatzen du, homogeneotasuna kudeatzeak ahalegin txikiagoa eskatzen duen bitartean, denok berdinak baikara. Aniztasuna oso interesgarria da, errealitatea da, baina ahalegin gehiago eskatzen du; beraz, baliabide gehiago behar du eta aniztasun handiko ikastetxeetan faltan botatzen dute. Lan asko dago horietan egiteko, baina ematen dituzten baliabideak aniztasun gutxiko ikastetxeei emandako berak dira. Egoera honen aurrean, zerbait egin beharra dago.

Nola uste duzu kudeatu daitekeela euskararen ezagutza desberdina duten umeen egoera? Erronka bat al da zenbait jatorritako ikasleak batzen diren ikastetxean euskara integrazioarako tresna gisa erabiltzea?

Irakasleentzat erronka oso handia da, eskolan hizkuntzarekiko dagoen aniztasuna kudeatzea. Metodologia batzuk daude, beste batzuk baino eraginkorragoak direnak; esaterako, parte hartzaileak edo proiektuen arabekoak, eraginkorragoak dira. Hala ere, kontuan hartu behar da adituek esaten dutela eskolako hizkuntza ikasteko urte ugari behar direla. Patioan jolasteko eta lagun arteko komunikazioa menperatzeko, esaterako, sei hilabete eta bi urte artean; eskolako hizkuntza ikasteko, ordea, bost – zazpi urte

behar direla esaten dute. Beraz pazientzia izan behar da, eta umea ahalegin handiak egiten ari dela jakin behar dugu. Prozesua luzea dela kontuan hartu behar da.

Gainera, batzuetan ikasle etorkinen eta egoera ekonomiko txarrean daudenen mugikortasuna eskolan handia da. Nahiz eta lehen ez zen gertatzen, ikasle batzuk joan egiten dira, eta gaur egun mugikortasun hori oso ohikoa da. Ikaskuntza prozesuen amaiera, berriz, irakasleak ez du ikusten. Umeak eskolan dagoenean asko ikasten du eta irakaslea inplikatzeko ari da, baina agian beste eskola batera joango da beste irakasle baten eskuetan geratuz. Kontuan hartu beharreko faktorea da.

Nagusitan (nerabezaroan) etortzen badira, berriz, ez dauzkate aurretik aipatutako bost - zazpi urteak. Oztopo bat da, zailtasuna.

Erronka bat al da... Gure egoera soziolinguistikoa oso konplexua da, tokian arabera oso desberdina da. Euskararen funtzioak eta ematen dituen aukerak desberdinak izango dira leku bakoitzean; beraz, horrekin kontatu beharra dago. Esaterako, Gasteizen umeak kalean gazteleraz bizi dira eta Zegaman euskaraz, beraz errazago ikasiko du ume batek euskaraz Zegaman Gasteizen baino. Inguruneak asko laguntzen du. Gure egoera soziolinguistikoa konplexu hau beraz, kontuan hartu beharrekoa da.

Etortzen direnak nerabeak badira, Gasteizen, esaterako, A ereduko institutueta joaten dira aukera gehiago izateko, ez baitauzkate bost – zazpi urte eskolako hizkuntza ikasteko. Batzuk gazteleraz dakite eta moldatzen dira, eta beste batzuek ikasi egin behar dute. Nahiago dute gazteleraren aldeko apustua egin eta euskara ez ikastea, asignatura moduan uzten dute.

Hala ere, nahiz eta euskara integratzearen tresna izan daitekeela esan, badira kasuak non ikasle etorkin ugari eskola jakin batzuetan pilatu, eta eskola horietatik familia autoktono ugari ihes egin duten. *Ghettoak* sortzen ari direla ere entzun izan da sarritan. Zein arrazoi dagoela uste duzu erabaki honen atzean? Ulertzen ahal duzu, hein batean, haien jarrera?

Egoera horiek hiri eta herri handietan gertatzen dira batik bat, non eskola bat baino gehiago dauden. Eskola bakarra baldin bada, ez dago arazorik, guztiak biltzen baitira bertan. Bi – hiru eskola baldin badaude, ordea, dinamika sozial batzuk ikusten ditugu, nolabait klase sozialak eta jatorriak eskolen arabera biltzen diren.

Klasismoa edo elitismoa aipatuko nituzke arrazoi nagusienetako gisa; edo bestela, gaur egun erabiltzen den aporofobia. Cortina filosofoak asmatutako kontzeptua da, pobreenganako fobia adieraziko lukeena. Ez da hainbeste atzerritarrenganako fobia, xenofobia edo arrazakeria ere badiren arren, baizik eta pobreenganako fobia. Etorri diren pertsonak gizartean, beheko geruza sozialean daude. Prekarizatuena, langabezia eta krisiaren ondorioak pairatzen dituztenak, lan txarretan eta gaizkien ordainduenetan aritzen direnak dira.

Gure gizartearen ezaugarrietako bat da elitismoa edo klasismo puntu hori. Euren burua beste klase batean ikusi nahi dutenek, nahiago dute aurrekoak ez dauden ikastetxe batera joatea. Horri eskola segregazioa deitzen zaio.

Ikastetxe batzuk duela hamabost urte daude segregatuta, esaterako, Gasteizen badago eskola bat soilik etorkinen seme-alabak dauden, soilik ijitoak edo soilik “autoktono”, zuri eta klase ertainekoak dauden. Aspaldidanik detektatuta dauden kontua da hori; hala ere, orain ikastetxe batzuk segregazio prozesuan sartzen ari direla ikusten da, batik bat, ikastetxe publikoak. Familia etorkinak matrikulatzen hasten direnean, momentu batetik aurrera, klase ertaineko familia “autoktonoei” jada gehiegi dela iruditzen zaie, eta beraz, ihes egiten hasten dira. Momentu horretan guztia borobiltzen da, eskola horretan urtean zehar etorritakoentzako lekua gelditzen baita, plazak etorkinekin betez.

Familia “autoktonoek” ez dute aipaturiko eskolen alde egiten, nahiz eta beti dauden salbuespenak, baina dinamika sozial orokorraz ari naiz.

Momentu honetan, beraz, aipaturikoa ari da gertatzen. Gasteizen argiki detektatzen da, baina Gipuzkoako eta Bizkaiko zenbait herritan ere dikotomia hori identifikatu da. Ikastetxe bat erabat segregatua, etorkinak eta pobreak joateko; bestetik, hori gertatzen ez diren ikastetxeak.

Halako kasuen adibideak... Eibarren, Ermuan, Lasarten, Eskoriatzan, Oñatin, Santurtzin, Arrasaten, bi edo hiru ikastetxe baldin badaude, nekez ikusiko dugu proportzioak berdinak direla. Beti daude dinamika batzuk beti bultzatzen dituztenak familia batzuk eskola batera eta beste batzuk beste batera. Komunikabideetan halako egoera bizi dutenen, “ghettizatuta” dauden eskolen, kexak agertu ohi dira, zer gertatzen ari den galdezka.

Klasea ere aipatzen duzu zure ikerketetako batzuetan. Zein paper jokatu luke halako kasuak oinarri hartuz gero?

Nik uste dut guraso “autoktonoen” irizpideetako bat ikastetxea aukeratzeko orduan, umeak norekin juntatuko diren dela. Gurasoen irizpidea norberaren klasekoa baino baxuagoa ez izatea dela uste dut. Batzuek nahiz eta etxean diru asko ez izan, ikastetxe kontzertatu bateko kuota ordaintzeko nahikoa dutela erabakitzen dute, eta beraz, euren seme-alaba bertan matrikulatu. Hori jada nahikoa da beheko geruza sozialeko familia zein umeekin harremanetan ez egoteko.

Gaur egun halako dinamika asko detektatzen dira, eta sarritan modu oso gordinean. Duela gutxi Candela Peñari egindako elkarrizketa batean, zeina bere irudia orain arte nahiko pobrea denarena izan den, bere umea eskola publiko batera eramaten zuten galdegin zioten. Berak horretan inkoherentea zela erantzuten zuen, bere umeari gauza handirik ezin izango diola utzi, baina harremanak egin ditzakeen eskola batera bidaltzen duela aipatzen du, umeari eskainiko diona hori izango dela gaineratuz. Umearen kapital soziala lehertzen da, eskolan egingo dituen harremanen arabera. Aipaturiko ideia edo intuizio hori egongo litzateke guraso askoren aukeraketaren azpian, nahiz eta guztiek ez duten oso garbi euren erabakiaren zergatia.

Aporofobia aipatu berri duzu behin baino gehiagotan. Arrazismoa dagoela uste al duzu?

Bai, erabakietan eragina duen faktorea dela usten dut; baina, gehien bat, aporofobia eta elitismoari edo klasismoari emango nieke garrantzia. Batzuetan kolorea bera ere, beltza edo beltzarana izatea, ez da gizartean asko estimatzen den ezaugarri bat, pobrea izatearekin lotzen dugulako. Ikastetxe ingelesak, adibidez, garestiak dira eta bertara joaten direnek maila sozioekonomiko altua dute. Beltzak, latinoak edo beltzaranak direnak joan daitezke, baina esparru horretan diruak, nolabait, guztiak berdintzen ditu. Dirua duten heinean, besteek ez dute sentitzen beltzaran horiek soberan daudenik.

Egia da arrazakeria gizartean dagoen arazo bat dela. Beltzarana, gaztea eta mutila bazara, esaterako, Donostiako diskoteka batean ez diote sartzen uzten, nahiz eta balitekeen dirua izan sarrera eta kopa bat ordaintzeko. Baina sarrerakoak, itxuraz, marokoar jatorria detektatzen du eta ez diete sartzen uzten. Hori arrazakeria da. Eskoletan, ordea, gehien bat detektatzen dena klasismoa da.

Amaiera

Halako egoerak kontuan hartuta eta gizarte eta norbanako guztiok osatuko genukeen kolektibo gisa, zein izan beharko litzateke gizartearen helburua?

Alderdi negatiboetan ari naiz enfasia jartzen. Hala ere, badaude ikastetxeak, irakasleak edota gurasoak gizartean oso inplikaturik daudenak, egoera argi ikusi eta aniztasunaren alde apustua egiten dutenak. Ez dute ihes egiten, ikastetxea anitza dela onartu eta balio hori aldarrikatu behar dela uste dute, segregaturik dagoela eta guztia kudeatzeko baliabide gehiago behar direla kontuan hartuz.

Gizartean, politikariek, hezkuntza administrazioan erabaki batzuk hartu beharko lituzkete. Badaude ikastetxe kontzentraturik batzuk, behar sozial honi erantzuten ez dienak. Beraz pentsatu behar dena da ea fondo publikoekin sostengatu behar diren edo ez; ez bada erantzuten, fondoak egoerari erantzuten dieten ikastetxeetan inbertitu daitezke. Neurri batzuk ere hartu daitezke; esaterako, badirudi urtean zehar etortzen diren umeak beti ikastetxe berberetan jartzen direla, beraz, beste ikastetxe batzuetara bidaltzea ere interesgarria da. Horiek, ordea, orain arte hartu ez diren neurri politikoak izango lirateke. "Ikastetxe horiek soilik etorkinentzat edo ijitoentzat". Hori oso itsusia da. Horren aurrean zerbait egin beharra dago, agian, itxi eta beste modu batean irekitzea.

Duela gutxi irakurri nuen, Estatu Batuetako albiste bat irakurri nuen. Zuriak eta beltzen arteko segregazioa legez duela hamarkada batzuk amaitu zen, baina oraindik ikastetxe segregatuak daude. Gasteizen, esaterako, segregazio izugarria dago, baina ez dago auzo bakar bat ere etorkinen kopurua %18 baino altuagoa denik. Beraz ikastetxe batean etorkinen kopurua %60 baldin bada, zerbait gertatzen da.

Neurri politikoekin ez bada eragiten, hogeitau urte barru honetaz hitz egiten egongo gara. Duela hamar urte ere honetaz hitz egiten geunden, eta hitz egiten jarraitzen dugu. Areagotzen ari da eta posible da hemendik hogeitau urtera, Estatu Batuetan bezala, honetaz hitz egiten jarraitzea.

Elkarrizketaren amaieran, jolas gisa, ondorengo kontzeptu bakoitzarekin elkarrizketatuari burura datorkion lehenengo hitza esan dezala. definizio txiki batean definitzeko eskatuko da. Asko pentsatu gabe erantzun beharko dira, burura etorritako lehen gauza erantzunez. Ondorengoak dira hitzak:

- Eskola - Aukera
- Aniztasuna - Errealitatea
- Jatorria - Aniztasuna
- Euskara – Zaintzeko altxorra
- Integrazioa - Erronka

Hitzak elkarlotuz, ondorengoko puntuak:

- Eskola, jatorria eta integrazioa – Erronka handia gizarte mailan, banaezinak; hala ere, gure gizarte ereduarekin lotuta dagoela esango nuke. Nolako gizartea gauden eraikitzen eta nolakoa izango den urte batzuk barru

Iñaki Alonso – Save the Children Euskadiko kidea

Me llamo Iñaki Alonso y llevo la parte de sensibilización de la infancia de *Save the children*, en el País Vasco. Lo que hacemos fundamental es tratar derechos de temas de infancia, desde cuatro áreas de trabajo: pobreza, violencia, migraciones y actitud negativo. Partimos fundamentalmente desde una perspectiva de desigualdad.

***Save the Children Euskadi*, como explicáis en vuestra página web, atiende a alrededor de 800 niños y niñas en situación de pobreza y exclusión social. ¿Cuál es el trabajo que hacéis con los niños y las niñas que están en esa situación?**

Nuestro acercamiento hacia los derechos de infancia es una perspectiva de desigualdad, de cómo los desigualdades nos afectan al desarrollo, acceso y disfrute de diferentes derechos. Realizamos el trabajo en esas áreas.

Normalmente se suele decir que muchos de los niños y las niñas que tienen derechos afectados, están en más de una de ellas. Hay probablemente niños de origen migrante que están en determinados centros educativos, en determinados barrios, que tienen una problemática de pobreza en su familia. En ocasiones eso determina determinadas cosas cara al futuro.

En un informe que publicasteis hace unas semanas, informabais que el 68,8% del alumnado de las “escuelas ghetto”, tiene un perfil socioeconómico bajo. ¿Me podrías explicar un poco mejor cuál es la situación en Euskadi y como afecta en nuestra sociedad?

El concepto de segregación que nosotros estamos hablando es de segregación socioeconómica; es decir, lo que se mide en el informe son perfiles de niños y niñas de índice más bajo de desarrollo, que se denomina ISEC1. Se habla de cómo ese tipo de niños y niñas se acumula en determinados centros educativos.

Decimos que hay una intensidad alta o muy alta, cuando el porcentaje de esos niños o niñas supera el 25%; pero, cuando se supera el 50% se habla casi de un centro ghetto.

Cuando se da la concentración educativa de niñas y niños de nivel socioeconómico vulnerable; es decir, cuando hay una situación de segregación educativa que provoca concentración, el nivel de intensidad es más alto aquí que en el resto de estado. La media resultante, cuando hay una muy alta intensidad en Euskadi, es de 68%. Lo que se quiere transmitir es que la intensidad de concentración es más elevada.

Hay que diferenciar los conceptos de segregación y concentración. La segregación educativa a veces puede ser un proceso, una política o un fenómeno. La segregación educativa provoca concentración.

La concentración es un hecho objetivo; es decir, perfiles similares se acumulan en un centro. La segregación es un fenómeno que provoca la concentración, lo cual es un hecho.

Relacionáis la segregación con el fracaso escolar, tomando en cuenta que es la situación de algunas escuelas públicas vascas...

El sistema educativo de Euskadi tiene buenos resultados. Vemos que determinados indicadores educativos en Euskadi están al nivel de lo que la Unión Europea se ha marcado de cara al 2020. Fundamentalmente en los que son la tasa de abandono escolar y la repetición.

Siendo cierto, lo que ocurre es que de los “pocos” de niños y niñas que abandonan o suspenden en Euskadi, el porcentaje más alto es de este perfil. Entonces, lógicamente, existe una probabilidad mayor de tener peores resultados.

Además del informe de Mézclate conmigo, sacamos el informe de Necesito mejorar (2016) y Desderados (2017). En este último hay un apartado que tiene que ver con la segregación educativa y en el que se dice con datos que hay un segmento de población

que tiene más opciones de repetir. En ese caso concreto, se analizan los de origen migrante (GRALerako baliagarri datua).

Esos son datos, pero debajo de los datos lo que hay es la desigualdad, un peligro enorme de cohesión social en el mundo (5:54 minutua, entzun berriz) porque van a distinta velocidad. Hay determinados grupos de población que van a distintas velocidades que otros. Eso no favorece en absoluto el pretendido objetivo de la cohesión social que se tiene en Euskadi.

Creo que en Euskadi hay una ventaja, entre comillas. Al haber indicadores macro e indicadores genéricamente mejores que en otras zonas del estado, entiendo también que existe la oportunidad de tener mejor identificado quién es esa población. Una vez identificada, probablemente es más factible organizar determinadas políticas enfocadas en esa problemática.

La desigualdad es una, pero tiene muchas vertientes y muchas caras. La cara educativa es una más, como la desigualdad social, la económica o la precariedad laboral. Te digo esto, porque lógicamente los agentes educativos se pueden sentir atacados, pero nosotros estamos poniendo el peso que hay que poner. Evidentemente hay problemáticas que vienen de lo social, pero la parte educativa no deja de ser parte de lo social.

Además en esas escuelas se necesitan más medios que en otras; a pesar de ello, las ayudas que se dan son las mismas que en las otras escuelas donde la situación es más fácil de llevar. ¿Qué crees que se podría hacer ante estas situaciones?

Las propuestas que nosotros hemos hecho se pueden analizar en tres cosas: políticas de oferta, políticas de demanda y políticas de recurso. Las políticas de oferta y demanda, tienen mucho que ver con la política educativa. Porque hay distintas prismas de como se ve la segregación escolar y el impacto que tiene en los niños y niñas.

Una es la de admitir que va a suceder, que son dinámicas sociales y que ante esto poco se puede hacer; y centrarnos en una discriminación positiva o dotar de mayores niveles de recursos en estos centros que tenemos identificados. O si no, además de hacer eso, debemos prevenir que se produzca. No darlo por sentado que se va a producir, sino a través de la política educativa de determinadas cuestiones, favorecerlo que no se produzca.

Las propuestas fundamentalmente están centradas en lo que tiene que ver con las oficinas de matriculación, la incorporación de los alumnos y alumnas una vez empezado el curso...

¿Me podrías contar alguna experiencia o caso que has conocido de cerca estos últimos años?

Una experiencia muy interesante se ha dado en Vitoria, en una escuela de la Parte Vieja que se llama Ramón Bajo. Hay un movimiento de padres y madres potente que ha sacado adelante un colegio que tenía una perspectiva compleja, una escuela con un alto porcentaje de población desfavorecida, con un alto porcentaje de población inmigrante y que ha salido adelante. También hay bastante ejemplos en Cataluña que han salido adelante.

Finalmente, creo que el cambio a veces viene de abajo y otras veces de arriba; en este caso, se necesitan ambas direcciones. El cambio debe venir de abajo y arriba.

¿Crees que el euskera puede ser una herramienta eficaz para la integración en una escuela donde se mezclan niños de distintos orígenes?

El euskera es nuestra lengua. Normalmente es una herramienta de integración básica la lengua del lugar al que te vas a incorporar.

Aquí tenemos la cooficialidad de ambas lenguas y sinceramente creo que es un tema que está politizado. Pero creo que la práctica va a poner cada cosa en su lugar. En este momento estamos ante un modelo A.

¿Qué es un niño de origen migrante? Hasta ahora la segregación educativa de personas extranjeras se ha medido por la nacionalidad de las personas, pero no estas midiendo el fenómeno por completo. Hay muchos niños y niñas que ya han nacido en Euskadi, que son vascos y que no tienen nacionalidad extranjera, aunque sus padres y madres sean extranjeros.

Estos niños se están escolarizando en el modelo B o modelo D. El modelo A ha quedado como algo más residual. El modelo B, es la convivencia de ambas lenguas, y el modelo D la inversión lingüística en euskera. Pero aunque en un momento tuvo una pequeña influencia en el ámbito de la segregación educativa, lo que es el idioma, yo

creo que en este momento la tendencia y la realidad de en qué línea se están matriculando los estudiantes es muy clara.

A pesar de todo, parece que la situación se está empeorando años tras año. ¿Hacia donde crees que nos llevan tales situaciones de segregación?

En Euskadi la tendencia era ascendente, pero a partir del 2016 aumenta. Ha aumentado hasta un 8,7% en Euskadi. Dentro de la evolución de otras zonas de estado no es las más alta, pero comparativamente con nuestro pasado, es alta.

Cada vez hay más tendencia, en algunas escuelas públicas, de huida del niño de la niña vasco o vasca de clase media a otros tipos de centros educativos; incluso gente de clase trabajadora hace el mayor esfuerzo para intentar llevar al niño o a la niña a un centro educativo X, que se supone que tendrán un rendimiento académico mejor.

Esa realidad se está dando y por eso los perfiles socioeconómicos se están homogeneizando en muchas escuelas. Eso es preocupante.

Según Amelia Barquín el factor que más influye en la segregación es la clase social, utilizando el concepto de aporofobia (fobia hacia los pobres) constantemente. ¿Cuál crees que es la razón que se esconde detrás de esos datos? ¿Relacionarías esos datos con aporofobia u el rechazo hacia los pobres?

Yo no sé si me atrevo a decir esa palabra. Yo creo que es un escapar de un imaginario que dice que juntarme con determinadas clases sociales va a hacer que mi hijo empeore los resultados.

¿Algo más?

Desde el punto de vista de educación creo que es un reto enorme, porque ahora mismo con el tema de documentos bases para el pacto educativo y la futura ley de educación, es un tema que hay que visibilizar.

Quizás la administración pública vasca no ha reconocido que esto sea una dificultad, aunque luego en la política con determinadas normas parece que si está demostrando.

Pero ahora hay mucho movimiento social. La escuela pública vasca, la ILP, el manifiesto de Vitoria, la campaña de los gitanos #Yotambiénquieroiraesaescuela...

7.2. Lanerako erabilitako kronograma

OTSAILA						
Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
			1.	2.	3.	4.
5.	6.	7. Iratirekin bigarren bilera	8. Irakasleen elkarrizketa prestatu	9. Irakasleen elkarrizketa Iratiri bidali	10. Dokumentua irakurri: Hezkuntza plana	11. Dokumentua irakurri: 11 Kolorek egindako txostena
12. Elkarrizketa berrikusi (Iratik bidalia) eta bukatu	13. Memoriaren atalak zehaztu, aurkibidea egin eta helburu nagusiak idatzi	14. Liburua* irakurri eta gurasoen elkarrizketa prestatu	15. Miribilla eskolako zuzendariarekin lehen bilera	16.	17. Gurasoen elkarrizketa Iratiri bidali	18. Memoria osatzen jarraitu
19.	20. Eskolara ikerketaren gidoia bidali	21.	22.	23.	24. Liburua* irakurtzen bukatu	25.
26. Olatz, eskolako gurasoarekin, elkarrizketa eta memoria osatzen jarraitu	27. Iratirekin hirugarren bilera	28. Olatzen elkarrizketa transkribatu				

MARTXOA						
Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
			1.	2.	3.	4. Liburuko iturrien aipuak transkribatu word-en
5. Gurasoen elkarrizketa gaztelerara itzuli	6. Eli eta Tavita , eskolako gurasoei, elkarrizketa	7.	8.	9.	10.	11. Eli eta Tavita ren elkarrizketa transkribatu
12.	13.	14.	15.	16.	17.	18.
19.	20.	21.	22.	23.	24.	25. Erreportajearen behin behineko egitura zein izango den finkatu
26. Iratirekin laugarren bilera	27. Erreportajearen behin behineko egitura zein izango den finkatu	28.	29.	30.	31.	

APIRILA						
Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
						1.
2.	3. Irakasleen elkarrizketa gaztelerara itzuli.	4. Erreportajearen behin behineko egitura finkatu eta Iratiri bidali	5.	6.	7.	8.
9.	10. Enrique, eskolako irakasleari, elkarrizketa egin eta transkribatu	11. Miribillako eskolan lehen behaketa eguna eta lanen egutegia sortu	12.	13. Txostena osatzen jarraitu	14.	15.
16. Behaketa eguna ordenagailura pasatu eta Ameliarekin kontak.	17.	18. Miribilla eskolan bigarren behaketa eguna + testua irakurri (Uribarri)	19. Izaskun eta Arantxari elkarrizketa	20. Izaskun eta Arantxaren elkarrizketa transkribatu	21.	22. Izaskun eta Arantxaren elkarrizketa transkribatu
23. Ameliaren elkarrizketa prestatu + Uribarri ordenagailura	24. Iratirekin laugarren bilera Txostena osatu eta erreportajea idatz.	25.	26. Amelia Barquini elkarrizketa HUHEZIN	27.	28.	29. Ingelesez dagoen testua bukatu
30. Ingelesez dagoen testua word-era						

MAIATZA						
Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
	1. Amelia Barquinen elkarrizketa transkribatu	2. Erreportajea idatzi	3. Erreportajea idatzi	4. Iratiri idatzitakoa bidali + Iñaki Alonsoren elkarrizketa	5.	6.
7.	8.	9. Erreportajea idatzi	10. Erreportajea idatzi	11.	12. Iratik lehenengo zuzenketa bidali + Iñaki Alonsoren elkarrizketa	13. Iratiri zuzenketak eta berrikusketak bidali
14. Iñaki Alonsori elkarrizketa egin + transkribatu eta STC txostena irak.	15.	16. Erreportajea idatzi	17. Behin behinekoa amaitu. Azken zatia faltan (Euskara – integrazioa)	18. Erreportajea idazten jarraitu	19. Erreportajea amaitu eta Iratiri bidali	20.
21. Memoria osatu	22. Memoria osatu	23. Iratirekin bosgarren bilera + erreportajearen zuzenketa	24. Bi zatidura egin: radiografia eta hiztegia + memoria	25. Memoria osatu	26. Memoria osatu eta Gasteizko manifestuaren zatidura egin	27. Memoria osatu
28. Memoria zuzendu	29. Iratirekin seigarren bilera + zuzenketak	30. Erreportajearen errepasoa eta zuzenketa	31. Lanaren entrega			